

TAILERRA: MUNDUKO EMAKUMEEN LITERATURA

1

INFORMAZIO OROKORRA

- Hizkuntza: **Josune Muñoz**¹
- Hizkuntza: Euskara.
- Data: Martxoaren 2tik maiatzaren 18ra (asteartero).
- Tokia eta ordutegia: Foru Liburutegia (2. Solairua, Hitzaldi Aretoa). 17:30-19:30.
- Izena emateko epea: otsailaren 16tik martxoaren 1ra. Webguneko formularioaren bitartez baino ez (www.bizkaia.eus/foruliburutegia → Kontaktatu → Ikastaro eta tailerrak). Epea otsailaren 16an 08:30etan irekiko da.
- Gehienez: 20 pertsona (hurrenkeraz).
- Doako jarduera.
- Foru Liburutegiko tailerrean parte hartzeak ez du eragiten inongo ziurtagirik.
- Foru Liburutegian sartzeko NANA, pasaporteak ala Liburutegiko txartela erakutsi behar da.
- 16 urtetik gorako pertsonen zuzendutako jarduera.

AURKEZPENA

Jarduera honetan munduko hainbat eskualdetako emakumeen literatura lanak euskaraz aztertuko dira. Genero desberdinek (katak, autobiografiak, ipuinak, eleberriak, etabarrek) gai ugari lantzeko aukera emango dute: amatasunak, haurdunaldia, zapia, dotea edo migrazioak, besteak beste (beti ere, guztiak emakumeen ikuspegitik).

¹ Bilbo, 1967. Euskal filologoa da eta emakumeek sortutako literatura eta komikiari buruzko ikerketa eta irakaskuntzan dihardu. 2003tik Skolastika proiektua zuzentzen du (www.skolastika.net). Emakumeen literaturaren gaineko aldizkarietan kolaboratzailea da, gaiari buruzko zenbait hitzaldi eta topaketetan parte hartzen. 2014. urtean *Café para madres* izenburuko ekimena martxan jarri zuen; bertan amatasuna eta honek dakartzen egungo erronken gaineko hausnarketa eta eztabaida pizten.

HELBURUAK

- Mundu mailako emakumeen egungo egoera politiko-kulturala aztertzea, literaturaren bitartez.
- Eskualde desberdinetako literatura adierazpiderik esanguratsuak ezagutzea.
- Mota honetako literatura irakurtzeko ohitura sortzea edo areagotzea.
- Literaturaren iruzkinak egiteko prozedurak lantzea.

2

EDUKIAK

1. Aurkezpena eta sarrera.
2. *Mila eta bat gau* eta Xerezaderen eragin kultural eta literarioa.
3. Emakumeak eta erlijioa. Islama: Al-Koran, Sharia eta Sunna. *Nire turbantearen sekretua*, Forugh Farrojazad.
4. Hain hurbil, hain urrun: Magrebeko kulturak: *Tunisian girl, Sahararrak*.
5. Krisiak, gatazkak eta literatura: *Gaza Amal*.
6. Asiako kulturetan zehar bidaiatzen: *Txirringaren aienean*.
7. Pakistan, India, Nepal, etab. Asiako emakumeen istorioak.
8. Txinako emakumeen idazkera eta literatura: *Nu Shu* dokumentala.
9. Japoniako emakumeen literatura eta komikiak: manga.
10. Afrikako ahozko literatura: Griott (CD).
11. Afrikako emakumeak bakea eraikitzen: autobiografiak eta *Emakume oinutsa*.
12. Afrikako emakumeen literatura: *Hain gutun luzea*. Ebaluaketa

METODOLOGIA

Klase atseginak egiten ahaleginduko da, partaidetza bultzatzen. Oro har, saioak teoriko-praktikoak izango dira. Tailarraren hasieran materialik banatuko da, hainbat testuz osatuta, saioetan landuko dena. Talde lanik egongo da, baita bateratze-lanak ere, ikus-entzunezkoak, etab.

OHARRAK

- Pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metrotako aldea mantendu behar izango da. Hau bete ahal izateko ez dira aretoaren altzariak tokiz mugituko.

- Maskara propioa erabili behar izango da etengabe, jarduera osoan zehar, pertsonen arteko 1,5 metrotako aldea beteta ere.
- Gel hidroalkoholikoa eskuragarri egongo da aretoan, edozein momentutan erabili ahal izateko.
- Saio guztietara DIN A-4 moduko paper zuria eta boligrafo propioa eraman behar izango dira, segurtasuna tarteko, Foru Liburutegiak ez dituelako banatuko.